

# Egoera ekonomikoa eta Merkatuak ASTEKO LABURPENA

2019ko ekainaren 10etik 14rako astea

---


## ➤ **INGURU MAKROA:**

- ❖ ASTEKO DATUEN PODIUMA
- ❖ KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

## ➤ **ASTE HONETAN MERKATUETAN**

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### EUROGUNEA: INDUSTRIA-EKOIZPENA



### Datuaren analisisa


Euroguneko industria-ekoizpena bigarren hilabetez jarraian jaitsi zen apirilean, Alemaniako uzkurdura handiak eta Italiako beherakada arinak eraginda. Euroaren 19 herrialdeetan, ekoizpena % 0,5 murriztu zen hilean, merkatuko aurreikuspenekin bat eginez, eta urte arteko % 0,4. Industria-ekoizpenaren apirilko jaitsiera martxoko % 0,4ko beherakadaren eta otsaileko datu lauaren ostean etorri zen. Osagaiei begira, energia eta kontsumo-ondasun ez iraunkorrak izan ziren datu positiboa eskuratu zuten bakarrak, nahiz eta azken horiek oso gutxi egin zuten gora. Alemaniak -% 1,9ko beherakada izan zuen, eta Italiako ekoizpena bigarren hilabetez jarraian jaitsi zen, -% 0,7. Frantziako ekoizpenak, aitzitik, % 0,4 egin zuen gora, eta Espainiak % 1,7ko igoera lortu zuen martxoko datuaren aldean. Urte arteko tasari dagokionez, industria % 1,4 hazi zen Espainian, urte arteko igoerarik handiena Euroguneko ekonomia nagusietan.

### Adierazlearen azalpena

Industria-ekoizpenaren indizeak (IPI) herrialde bateko industria-sektorearen adierazgarri den enpresa multzo baten ekoizpenean emandako aldaketak neurtzen ditu. Hilero enpresei industria-sektorearen egoerari buruz egiten zaizkien galdetegiaren erantzunetatik lortzen dira datuak. Ekonomia baten ekoizpen-maila nola aldatzen den jakitea oso garrantzitsua da hazkundearen analisisa egiteko.

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### AEB: INDUSTRIA-EKOIZPENA



### Datuaren analisisa


AEBetako industria-ekoizpenaren indizeak % 0,4 egin zuen gora, apirileko % 0,4ko beherakadaren ostean. Espero zenaren bikoitza egin zuen hobera, baina ez zuen aurreko hileko -% 0,5eko datua orekatzea lortu. Urte arteko tasa % 2ra igo zen. Industria-gaitasunaren erabilera, aldiz % 77,9tik % 78,1era igo zen.

### Adierazlearen azalpena

Industria-ekoizpenaren indizeak (IPI) herrialde bateko industria-sektorearen adierazgarri den enpresa multzo baten ekoizpenean emandako aldaketak neurtzen ditu. Hilero enpresei industria-sektorearen egoerari buruz egiten zaizkien galdetegiaren erantzunetatik lortzen dira datuak. Ekonomia baten ekoizpen-maila nola aldatzen den jakitea oso garrantzitsua da hazkundearen analisisa egiteko.

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### AEB: MICHIGANEKO KONFIANTZA



### Datuaren analisisia

Kontsumitzailearen konfiantzaren ekaineko atariko datua 100etik 97,9ra jaitsi zen, espero zen moduan (98). Bada, beherakada hori aurreikuspenen eskutik etorri zen, 93,5etik 88,6ra jaitsi zirenak, espero ziren 92 puntuak baino askoz okerrago. Uneko baldintzen indizeak, ordea, 110etik 112,5era egin zuen hobera, aurreikuspenak gaindituz (109,2). 5 urterako inflazio aurreikuspenak % 2,20ko mailara jaitsi ziren, aurreko 2,60tik.


### Adierazlearen azalpena

Kontsumitzailearen sentimenduaren indizea (ICC) kontsumitzailearen konfiantza neurtzen duen adierazle ekonomikoa da, eta, beraz, kontsumitzaileen gastua aurreratzen duen adierazlea da. Michiganeko Unibertsitateak argitaratzen du hilero. Amerikako 500 etxetan ekonomiaren egoera orokorraren eta gaur egungo zein etorkizuneko finantza-egoera pertsonalaren inguruan egindako inkestan jasotako datuak ditu oinarri. Kontsumitzailearen konfiantza altuak hedapen ekonomikoa sustatuko du, baina, baxua bada, hazkunde ekonomikoaren uzkurdua eragingo du.



## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### AEB: KPI



### Datuaren analisisia


KPIa % 1,8koa izan zen maiatzean; beraz, adituek espero zutena baino hamarren bat beherago kokatu zen, eta apirileko datua (% 2) baino bi hamarren beherago. Elikagaiak eta energia kontuan hartzen ez dituen azpiko KPIak ere % 2raino egin zuen behera, espero zen % 2,1aren aldean. Inflazioak indarra galdu zuen, eta lan-merkatuak neke apur bat erakutsi zuen. Egoera horretan, hurrengo bileretan FEDek tasak jaisteko aukerak gero eta handiagoak direla uste du merkatuak.

### Adierazlearen azalpena

KPIa hileroko prestatzen du Lan sailak. Amerikako etxeek kontsumitzen dituzten oinarritzko zerbitzu eta ondasun multzoaren prezioen mailaren bilakaera erakusten du, "erosketa-saskia" izenarekin ezagutzen dena. Ez du produktuen prezioa adierazten, baizik eta batez beste haien balioa zenbat handitu edo txikitu den, ehunekotan adierazita. Balioaren aldaketak herrialdearen inflazioa zehaztuko du.

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### JAPONIA: BPGd



### Datuaren analisisia

Astelehen honetan, Gobernuak gorantz berrikusi zuen urtarrila-martxoa hiruhileko barne-produktu gordina (BPGd): % 2,2 hazi zen iazko epe beraren aldean, maiatzean argitaratu zen datua baino hamarren bat gehiago. Munduko bigarren ekonomiaren barne-produktu gordinaren (BPGd) hazkundea % 0,6koa izan zen aurreko hiru hilabeteen aldean, hasieran aurreikusitako % 0,5aren gainera, Kabinetearen Bulegoak argitaratutako datuen arabera. Igoera hori kapital-inbertsioaren datua gorantz berrikustearen ondorioa izan zen, % 0,2tik % 0,5era igaro zena.

### Adierazlearen azalpena

Barne produktu gordina (BPGd) herrialde baten ekoizpena eta hazkunde ekonomikoa neurtzeko erabiltzen den adierazle ekonomiko bat da. Herrialde batek edo ekonomia batek ekoizten dituen azken zerbitzu edo ondasunen batuketak eginez lortzen da, eta denbora-tarte jakin batean erregistratzen da. Zerbitzu edo ondasun horiek lurralde nazionalen ekoiztakoak izan behar dute, hala enpresa nazionalen nola atzerrikoen eskutik.

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### TXINA: INDUSTRIA-EKOIZPENA



### Datuaren analisisia

Txinako industria-ekoizpena % 5 hazi zen iragan maiatzean, eta apirilean, aldiz, hazkunde hori % 5,4koa izan zen. Horiek horrela, datuaren igoerarik txikiena izan zuen 2002ko otsailetik, Txinaren eta AEBen arteko tentsio komertzialak larriagotu zirenean. Datua analisten aurreikuspenen oso azpitik egon zen, % 5,5 inguruko hazkundera aurreikusten baitzuten. Meatzaritza-industriaren ekoizpenaren hazkundera % 3,9koa izan zen, aurreko hileko % 2,9aren aldean. Manufakturen ekoizpenak, aldiz, % 5eraino egin zuen behera % 5,3tik, eta utilitietan % 8,6tik % 5,9ra jaitsi zen.

### Adierazlearen azalpena

Industria-ekoizpenaren indizeak (IPI) herrialde bateko industria-sektorearen adierazgarri den enpresa multzo baten ekoizpenean emandako aldaketak neurtzen ditu. Hilero enpresei industria-sektorearen egoerari buruz egiten zaizkien galdetegiaren erantzunetatik lortzen dira datuak. Ekonomia baten ekoizpen-maila nola aldatzen den jakitea oso garrantzitsua da hazkunderaren analisisa egiteko.

## KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

| Data  | Eremua         | Adierazlea                              | Aurreik.  |
|-------|----------------|-----------------------------------------|-----------|
| 06/17 | Estatu Batuak  | Manufakturen inkesta New York           | 12.0      |
| 06/18 | Eurogunea      | Balantza komertziala SA                 | --        |
| 06/18 | Eurogunea      | Urte arteko KPIa                        | % 1.2     |
| 06/18 | Alemania       | ZEW oraingo egoerari buruzko inkesta    | 10.0      |
| 06/18 | Alemania       | ZEW inkestaren aukerak                  | -5.0      |
| 06/18 | Eurogunea      | ZEW inkestaren aukerak                  | --        |
| 06/18 | Estatu Batuak  | Hileko etxebizitza berriak              | % 0.3     |
| 06/19 | Japonia        | Balantza komertziala                    | -¥1207.0b |
| 06/19 | Erresuma Batua | Urte arteko KPIa                        | % 2.0     |
| 06/19 | Estatu Batuak  | Tasen erabakia Erreserba Federala       | % 2.25    |
| 06/20 | Erresuma Batua | Banku-tasa Ingalaterrako Bankua         | % 0.750   |
| 06/20 | Estatu Batuak  | Hasierako langabezia-eskaerak           | --        |
| 06/20 | Eurogunea      | Kontsumitzailearen konfiantza           | -6.4      |
| 06/20 | Japonia        | BOJen politikaren oreka mota            | --        |
| 06/21 | Japonia        | Urte arteko KPIa                        | % 0.7     |
| 06/21 | Frantzia       | Markit PMI Composite Frantzia           | --        |
| 06/21 | Alemania       | Markit/BME Alemania Composite PMI       | 52.8      |
| 06/21 | Eurogunea      | Markit PMI Composite Eurogunea          | 52.0      |
| 06/21 | Espainia       | Balantza komertziala                    | --        |
| 06/21 | Estatu Batuak  | Markit PMI Composite AEB                | --        |
| 06/21 | Estatu Batuak  | Bigarren eskuko etxebizitzaren salmenta | 5.30m     |
| 06/21 | Estatu Batuak  | Hileko etxebizitzaren salmenta          | % 2.1     |



## BURTSA:

Itxiera positiboak mundu osoko burtsa-merkatuetan, igoera txikiekin Europan eta moderatuak AEBetan, eta bolumen xumeekin. Ziurgabetasun komertziala, ekonomikoa eta politikoa izan ziren, hain zuzen ere, inbertitzaileek zuhurtziaz jokatzearen arrazoiak. Merkataritza-arloan, AEBek eta Mexikok migrazio-fluxua murrizteko akordioa sinatu zuten astearen hasieran. Bada, akordio horri esker, iragan astelehenean bertan Mexikoko inportazio guztiei ezarri behar zitzaizkien muga-zergak bertan behera geratu ziren mugarik gabe. Hala ere, Osakan egingo den G20rako bi aste falta diren honetan, AEBek eta Txinak bilera eta akordio bat egiteko itxaropenak desagertzen joan ziren. Asiako erraldoiak elkarriketak boikotatzea leporatu zion Ipar Amerikari, Txinako legean ehunka aldaketa egiteko eskatu baitzuen. Bestalde, Trumpek baieztatu zuen muga-zerga gehiago ezarriko dizkiela Txinako inportazioei G20 goi-bileran aurrerapenik egiten ez bada. Gainera, Txinarekin duen harremana "suminkorra" dela esan zuen. Bestalde, oraindik ez dakigu G20 bileraren baitan presidenteen arteko bilera egingo den ala ez. Fronte geopolitikoan, tentsioak gora egin zuen berriro Persiar golkoan, Omango golkoan, Irango kostaldetik gertu, bi petrolio-ontziri eraso egin ostean. Horrek ezinegona piztu zuen, horniduretan etenak egoteko aukerak daudelako. Azkenik, ekonomia kontuetan, Txinako industria-ekoizpenaren datu txarra nabarmendu zen. Nolanahi ere, Pekingo gobernuak proposaturiko pizgarri ekonomiko berriek, gastu publikoa handitzeko politika barne, datu kaskar hori arindu zuten, eta Shanghai indizeak asteko burtsa-aurrerapen handienak izan zituen.

## ERRENTA FINKOA:

Errenta aldakorrek izandako fluxuen sarrerak ez zion erakargarritasunik kendu errenta finkoari. Hainbat eskualdetako KPlaren beheranzko joerak eta Banku Zentralen tonu lasaiak Europako Gobernuen kurbak maila oso baxuetan mantentzen laguntzen dute. Bund-a -% 0,26an kokatu zen, eta Espainiako bere homologoak % 0,50ean amaitu zuen astea, nahiz eta lehen aldiz bere historian maila horren azpitik kotizatu. Italiako 10 urterako bonuak -1 op egin zuen behera, Bruselarekin izandako borroka eta egun hauetako diru-paperaren jaulkipen oparoa gorabehera. Kredituaren diferentzialak, aldiz, estutu egin ziren.

## DIBISAK / LEHENGAIK:

Ziurgabetasuna handiagoa den testuinguru honetan, euroak indarra galdu zuen dolarraren aurrean, eta yena babes-aktiboaren paperean mantendu zen, indarra hartuz. Lehengaietan, Omango golkoak tentsioek munduko itsasbide nagusietako batetik zeharreko urre beltzaren fluxua murrizteko aukeren inguruko kezka areagotu zuten. Nolanahi ere, Estatu Batuetako petrolio gordinaren inbentarioen gorakadak eta eskariaren handitze txikiago baten gaineko beldurak eragin

| INDIZEAK            | PREZIOA   | % Aldaketa Astean | Ald. % 2019 |
|---------------------|-----------|-------------------|-------------|
| MSCI WORLD (Local)  | 1.634,53  | 0,52              | 13,40       |
| IBEX 35             | 9.194,20  | -0,45             | 7,66        |
| DJ EURO STOXX 50    | 3.379,19  | 0,02              | 12,59       |
| DJ STOXX 50         | 3.129,82  | 0,33              | 13,40       |
| FTSE                | 7.345,78  | 0,19              | 9,18        |
| S&P 500             | 2.886,98  | 0,47              | 15,16       |
| Dow Jones           | 26.089,61 | 0,41              | 11,84       |
| NASDAQ              | 7.796,66  | 0,70              | 17,50       |
| NIKKEI 225          | 21.116,89 | 1,11              | 5,51        |
| MSCI GORAKORRAK (Lo | 56.586,13 | 0,80              | 5,93        |
| MEXBOL              | 43.130,65 | -0,37             | 3,58        |
| BOVESPA             | 98.040,06 | 0,22              | 11,55       |
| SHANGHAI            | 3.018,47  | 1,91              | 15,59       |
| Errusia Rts Mosku   | 1.341,05  | 1,14              | 25,48       |

| Gobernuen tasak             | Maila  | Aldaketa Astean | Ald 2019 |
|-----------------------------|--------|-----------------|----------|
| ALEMANIA 2 URTE             | -0,69  | -0,02           | -0,08    |
| ESPAINIA 2 URTE             | -0,39  | -0,01           | -0,15    |
| AEB 2 URTE                  | 1,84   | -0,01           | -0,65    |
| ALEMANIA 10 URTE            | -0,26  | 0,00            | -0,50    |
| ESPAINIA 10 URTE            | 0,50   | -0,05           | -0,92    |
| AEB 10 URTE                 | 2,08   | 0,00            | -0,60    |
| ALEMANIA 30 URTE            | 0,32   | -0,01           | -0,55    |
| ESPAINIA 30 URTE            | 1,55   | -0,05           | -1,06    |
| AEB 30 URTE                 | 2,59   | 0,01            | -0,43    |
| Kreditu-spreada (op)        |        |                 |          |
| MARKIT ITRX EUROPE 06/24*   | 61,75  | -1,78           | -26,62   |
| MARKIT ITRX EUR XOVER 06/24 | 273,97 | -8,48           | -79,71   |

| Dibisak         | Maila  | % Aldaketa Astean | Ald. % 2019 |
|-----------------|--------|-------------------|-------------|
| Dolarra / Euroa | 1,12   | -1,16             | -2,12       |
| Yena / Euroa    | 121,67 | -0,77             | -3,14       |
| Libera / Euroa  | 0,89   | 0,02              | -0,96       |

| Lehengaiak        | Maila    | % Aldaketa Astean | % Ald 2019 |
|-------------------|----------|-------------------|------------|
| Petrolio (Brendt) | 62,89    | -2,09             | 18,28      |
| Urrea             | 1.341,85 | 0,08              | 4,63       |

handiagoa izan zuten petrolioaren prezioan, -% 2,09 jaitsi zena.

Kutxabank Gestión SGIIC SAUk prestatu du agiri hau, eta horretarako, fidagarriak diren informazio-iturriak erabili ditu. Hala ere, ezin du ziurtatu bertan jasotako informazioa eta iritziak erabat zehatzak, zuzenak eta osoak direnik, eta ez du bere gain hartzen horren gaineko inolako erantzukizunik. Agiri honetan agertzen diren informazio eta iritziak edonoiz aldatu daitezke, aurretik horren berri eman beharrik gabe. Kutxabank Gestión SGIIC SAUk ez du agiri honen eta bere edukien erabilerak sortu ditzakeen kalteen gaineko erantzukizunik hartzen. Finantza-merkatuetan eragiketak egiteak arrisku handiak sortu ditzake, eta posizioa etengabe zaindu behar da. Txosten hau ez da eskaintza bat ez eta finantza-aktiboak erosi edo saltzeko eskaera bat ere. Agiri hau zu informatzeko besterik ez da, eta hirugarrenek ezin dute berregin edo banatu. Era berean, ezin da, inolako aitzakiapean, osorik edo zati bat argitaratu.